


noaua



USURBIL FT ETA BOLEIBOL TALDEA, BAT EGINIK

Elkarlanerako borondateak batu ditu Usurbilgo boleibol zein futbol taldeak / 12-14 or.

ARGAZKIA: ALEX TELLO



NOAUA

Prebentzio neurriak, zebra muskuiluaren hedapena eragozteko / 05




NOAUA

Pepa Bojok ikastaro berri bat eskainiko du otsailaren 14tik aurrera / 06



NOAUA

Ander Lipus, 'Miñan' antzezlanaz: "Jendea hunkituta ateratzen da" / 08



ALEX TELLO

Alex Telloren lehen film luzea Sutegin ikus ahal izango dugu ostiral honetan / 22



ANDATZA TABERNA

Neguko ordutegi berria!

EGUNEKO MENUA
ASTEBURUKO MENUA
KARTA
RAZIOAK
OGITARTEKOAK

Ostegunetan
Pintxo pote!

8:00-20:00 Astelehenerik - Ostegunera **BAZKARIAK**
8:00-23:00 Ostiraletik - Larunbatera **BAZKARIAK / AFARIAK**
8:00-21:00 Igandeak **BAZKARIAK**

Kalezar Auzoa 12, 0B, USURBIL 943732027



Albania

IRTEERA 2025eko maiatza

NOAUA BIDAIAK Noaak gidatutako talde bidaiak. Lasarte-Oriatik irtenda.

943 37 36 13 • info@noaa.eu • Hipodromo Etorbidea, 10 • Lasarte-Oria

OTSAILAK 7 Ostirala

ANIMO
Film estrenaldia

Ordua: 19:00
Nor: Sutegiko auditorioan
Sarrerak: doan, gonbidapena eskuratu beharko da



OTSAILAK 8 Larunbata

ITOIZ UDAKO SESIOAK
Film emanaldia

Ordua: 19:00
Nor: Sutegiko auditorioan
Sarrerak: 6€ (Bazkideek 4€)



OTSAILAK 9 Igandea

MIÑAN Antzerkia

Ordua: 18:00
Nor: Sutegiko auditorioan
Sarrerak: 10€ (Bazkideek 8€)



Sarrerak eta gonpidapenak: usurbilkultura.eus webgunean edo Noaua!ko egoitzan egongo dira eskuragarri



Antolatzailea:



Laguntzailea:



NOAUA! Kulturaldia 2025

Argia Sariak Atxega jauregian banatu zituzten

Euskarazko kazetaritza zein komunikazioa goraipaturiko sei sari banatu zituzten aurreko astean Atxega jauregian:

- Ikus-entzunezko saria: EITB Kultura telebista saioa, euskal kulturgileen lana sustatzeagatik.
- Prentsako saria: Irutxuloko Hitza, eskuin muturraren igoerari egindako jarraipenagatik. Lan-taldean da Aizpea Aizpurua zubietarra.
- Entzunezko saria: BaDA!bil, Durangoko Azokan kulturaz egindako podcasta.
- Interneteko saria: Oroibidea, Nafarroako oroimen histori-

koa berreskuratzeko bilatzailea.

- Kanpaina onenaren saria: Altxa Burua ekimena, seme-alabek mugikorra gutxiago erabiltzeko abiatutako borrokatik. Pantailen erabilera egokia sustatu nahi du herriz herriz hedatua den mugimenduak. Usurbilen ere taldea badu. Ekainean Gipuzkoa mailako bilguneen topaketa egin zuten Udarregin. Usurbilgo taldeko ordezkarietako batek jaso zuen.
- Merezimenduzko saria: Ene Kantak, gazteen artean euskaraz sustatzeko egindako lanagatik.



Aurtengo sarituak, familia-argazkian.

Garbigune mugikorra, Txokoalden

Otsailaren 6tik aurrera, garbigune mugikorra Santuenean izango da. Era honetan, etxeko hondakinen berrerabilpena eta birziklatzea sustatu nahi da. Hondakinak bere horretan bota, poltsarik gabe. Otsailaren 13an osteguna, garbigune mugikorra Kalezarrera eramango dute.

Kzguna arratsalde zabalduko dute otsailean

- Otsailak 3-14, 18:00-20:00 "Oinarrizko Interneta. Nabigatzen eta posta elektronikoak bidaltzen ikasi".
- Otsailak 17-28, 18:00-20:00 "Ofimatika tresnak-LibreOffice".

Informazio gehiagorako:
943 023 684

1956an jaiotakoak Sekañan batuko dira otsailaren 22an

Otsailaren 22an larunbatetarakin, Sekaña jatetxean elkartuko dira eguerdiko 14:00etan. 1956an jaio zirenek eta joateko asmoa dutenek, otsailaren 15a baino lehen eman behar dute izena. Bi telefono zenbaki hauetako batera deitu: 687706363 (Mertxe) 695780696 (Blanka).

Usurbildik abiatuko da hurrengo paseo osasungarria

Astearte honetan Aginagan berriz martxan jarri ondoren, "Goazen kalera, Usurbil" dinamikaren hurrengo hitzordua otsailaren 11n izango da Usurbilgo erdigunean, 10:30-12:00 artean. Frontoitik abiatuko da. Ibilbide hauetan hauetan edonork parte hartu dezake. Amaieran, hamaiketako.

noaua

TOKIKOM

Argitaratzailea:
Noaua Kultur Elkarte
Bordaberrí 3, Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil
943 360 321
elkartea@noaua.eus

Elkarteko lehendakaria:
Ugaitz Agirre.
Aldizkari koordinatorra:
Imanol Ubeda.
Idazkaria:
Alaitz Aizpurua.

Erredakzio kontseilua:
Aritz Lasarte, Ixaso Orbeagozo,
Imanol Ubeda.
Diseinua: Goiena.
Publizitate arduraduna:
Beatriz Alda.

Tel.: 943-360 321
publizitatea@noaua.eus
Banatzaleak:
Iñaki Irazusta, Iban Maritxalar.
Lege Gordailua: SS-668-96.
ISSN: 1136-6818.

Tirada: 2.980 ale.
Inprimategia:
Antza inprimategia. Zirkuitu
ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Usurbilgo Udala

IRITZIA



ALAZNE ARRUTI BENGOETXEA

Fedibertsoa

Honezkerok ikusiko zenuten Trumpen kargu hartzearen saioko irudiren bat. Lehen lerroan, guztiontzat horren ezagunak ez diren aurpegi ezohikoak ikusi zitezkeen. Ezohikoak diot, izan ere, normalean bertan kokatzen diren estatuetako gobernadoreak eta haien alderdiko beste hautetsi batzuk, ondoko gela batera eraman omen baitzituzten, gertaerak pantaila handiko telebista batean jarraitzeko.

Mark Zuckerberg, Jeff Bezos, Sunder Pichai, Elon Musk eta hauen emazte edota senideak ziren. Guztiak ezagutzea zaila den arren, hona hemen itzulpen soildu baina ulertzeko nekez bat: Meta (besteak beste Whatsapp, Messenger, Facebook, Instagram... gisako sare sozialen taldea), Amazon (merkataritza elektronikoko eta laino edo sarean oinarritutako konputazioan diharduen korporazioa) eta Google-n (adimen artifiziala, lineako publizitatea, bilaketa-motorren teknologia, hodeiko konputazio, software.. dabilen enpresa) ordezkariak ziren.

Elon Musk, azken izenak bestalde, jabetzan ditu Tesla (punta-puntako auto elektrikoekin diseinuan oinarrituriko enpresa), SpaceX (suziri eta espazio-ontzi aurreratuak diseinatu, fabrikatu eta jaurtitzan dituen, besteak beste, turismo espaziala sustatu eta per-



"Beraz, hartu arnasa eta jarraitu dezagun sare berri eta gardenago batzuk garatu eta elikatzen".

tsonak beste planeta batzuetan bizi ahal izateko helburua duena), eta 2022 urtean erosi eta Xizenez berrizendatu zuen Twitter sare sozial ezaguna.

Trump, harro agertu da industria teknologikoan duen eragina lau haizetara zabalduaz. Eta hain zuzen, Elon Musk, munduko pertsonaiarik aberatsenetakoa txertatu du bere kontseilarien artean, Gobernu Eraginkortasuneko Departamentu berriaren buru izateko.

Ez, irakurri berri duzuna, ez da pelikula apokaliptiko baten hasierako kontakizuna. Egungo munduan, teknologia eta

informazio kudeatzeko bide berriek duten boterea agerian dago, inoiz baino argiago. Eta guk, zer egin dezakegu korronte honen aurrean? Sare sozial eta adimen artifizialaren tsunamiak irentsi gaitzan utzi?

Gaiaren larritasuna eta konplexutasuna kontuan izanda, pasa den urtarrilaren 20an, hainbat eragilek kanpaina berri bat abitu zuten mundu mailan, "Goazen lagunok" lelopean. Multinazionalen jabetzako sare sozial "toxikoak" utzi eta fedibertsoa trantsizio kolektiboa bultzatzeko deia egin zuten. "Internet gizatiarrago batean sinesten dugu, monopoliorik, algoritmo inbaditzailek eta nahi ez den publizitatek gabe", diote. Beraz, aizue, hartu arnasa eta jarraitu dezagun sare berri eta gardenago batzuk garatu eta elikatzen. Zatozte, eta topa gaitzen Mastodon gisako espazio berrietan!

**"ZATOZTE, ETA
TOPA GAITZEN
MASTODON
GISAKO ESPAZIO
BERRIETAN"**

Garraio zerbitzu publikoen doakotasun berriaz

12 urtetik beherakoek doan balia ditzakete urtarrilaren 30az geroztik, garraio zerbitzu publikoak. Kontuan hartzeko moduko bi ohar:

- Mugi txartelari dagokionez, "Euskotrenen garraiobide guztietan, bakarrik bidaiatzen duten 12 urtetik beherakoek gurasoen edo tutoreen baime-na beharko dute, eta eredia Euskotrenen webgunetik jaitxi daiteke". Informazio gehiago euskotren.eus atarian duzue.
- Lurraldebusen kasuan, "beharrezkoa izango da Mugi txartel pertsonalizatua izatea eta hau erakustea. Gidariak doako bilete bat emango dio erabiltzaileari".

Helduentzako tertulia filosofikoa

Otsailaren 14rako iragarri dute Usurbilgo Oinherri eta jakinmin elkarteek saio hau, 18:30-20:00 artean Potxoenean. Garazi Aizpuruak bideratuko duen saiorako izena aurrez eman ahalko da doan, usurbilkultura.eus plataforman.

Barrikotea Aitzaga elkarte

Otsailaren 7an 21:00etan. Menua: baratxuri eta ganbanahaskia, bakailua piper eta tomate saltsarekin, saiheskia, postrea, kafea eta kopa. Afaritarako sarrerak aurrez eskuratu ahaliko dira Aitzagan bertan edo Txiribogan, 30 euroren truke.

Antxeta
TABERNA
egunero irekitzen dugu!
eguneko menua · asteburuko menua
oilasko erreak, ogitartekoak, raziokak...
paellak enkarguz!
943 54 43 12 Zubiaurrena 6, Usurbil.

ARANKA
BERRIKUNTZAK
· Fatxadun estaldurak · Estalkien berriztatzeak
· Barruko berrikuntzak · Gremioen koordinaketa
· Igeltseritza orokorra
606 37 21 05 USURBIL

ARRANDEGIA
PELLO
9:00-13:30
ASTEARTETIK LARUNBATERA
PUNTA PAX 7, 650 31 31 91

ZENDOIA
ENEAtaberna
Kale Nagusia 35, Usurbil



Orian, Aginaga inguruan eman den agerraldiari aurre egiteko "hainbat tratamendu-metodo baloratu dira". URA AGENTZIA

Etengabeko jarraipena eta prebentzio neurriak, zebra muskuiluaren hedapena eragozteko

Gipuzkoan lehen aldiz atzeman dute "inpaktu handiko espezie inbaditzaile" hau.

Errioa gertutik bizitako aginagarrek egin zuten alertarako deia. Uraren Euskal Agentziak izan ziren behaketa lanetan gero. Erakunde arteko jarraipen batzordearen bilkura eragin du azkenik ibaiaren jazotakoak. Izan ere, Orian Aginaga parean zebra muskuiluaren agerraldiaz ohartarazi dute. Aipatu batzordearen arabera, Gipuzkoan "lehen aldiz atzeman da".

Horregatik, biltzea erabaki du Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Zebra Muskuiluaren Jarraipen Batzordeak. Bertan ordezkatuak daude, "Foru-Al-

dundiak, uraren erakunde kudeatzaileak, EHU, Kantauriko eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoak eta URA".

Bilgune horretatik jakinarazi dutenez, "Oria ibaiaren beheko zatian hauteman da, Aginaga parean, eta ibaitik 600 metrora hedatzen da, gutxienez, ibaiaren meandroetan dauden legarretan; hala ere, liteekena ei da hiru kilometroko tarte batean hedatzea".

Aipatu moduan, Gipuzkoan lehen aldiz atzeman dute "inpaktu handiko espezie inbaditzaile" hau. 2016. urtetik ez dute orain arte "begizatze

berririk atzeman". Izan ere, "espezie hori Undurragako (Bizkaia) eta Urrunagako (Araba) urtegiatan erregistratu zen 2015ean eta 2016an".

"Hainbat tratamendu-metodo ebaluatu dira"

Aginagako agerraldi horri aurre egiteko, aipatu jarraipen batzordetik jakinarazi dutenez, "hainbat tratamendu-metodo ebaluatu dira. Neurri horien artean daude eremu txikietan eskuz ezabatzea, aldi baterako lehortzea eta sistema itxietan iragazkiak instalatzea, baita tratamendu termikoak eta kimikoak ere, kontrolatutako baldintzetan. Hala ere, sistema irekietan, kontrol kimikoak ez dira eraginkorrak,

"BERE ERAGINA OSO KALTEGARRIA DA URETAKO EKOSISTEMAN"

ingurumen-arriskuak direla-eta".

Orian "espeziearen prospekzio espeziatzaile" egingo dela aurreratu dute baita Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako "beste ibai-arro batzuetan, ingurumen DNA bidezko analisi gehigarriekin".

Bere hedapena prebentzio eta etengabeko jarraipen bidez kontrolatu asmo dute. Horretarako, funtsezkotzat jotzen dute "eskumena duten administrazioen eta eragileen arteko koordinazioa" espezie inbaditzaile horren hedapena eragotzi eta ur-ekosistemak babesteko.

Ugalkortasun handikoa

Espezie inbaditzaile honi buruzko hainbat xehetasun ere azaldu dituzte. Asiarra deitzen zaio, "jatorriz Asiako hegoaldekoa eta ekialdekoa" delako. "Ahalmen inbaditzaile nabarmeneko da, eta horrek eragin negatiboa izan du uretako ekosistemetan eta galera ekonomikoak eragin ditu. Ur gezaren espezie honek maskor sendoa eta sailhets erregularak ditu ezaugarri, eta metro karratuko 10.000 indibiduoko dentsitate irits daiteke, ugalkortasun handia duelako".

Espezie hau "iragazle eta hermafrodita bat da; ur argiak eta ondo oxigenatuak nahia go ditu; hondar hareatsuak okupatzen ditu usu. Ezaguna da temperatura eta gazitasun desberdinetara egokitze duen gaitasunagatik, nahiz eta kutsadura ondo onartzen ez duen. 1981ean Espainian lehen aldiz aipatu zenetik, hainbat arro hidrografikotan hedatu da, eta nabarmentzekoak dira Miño, Ebro, Guadiana eta Duero ibaien populazioak".

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

txirriStra
TABERNA
·PLATER KONBINATUAK
·BOKATAK ·PINTXOAK
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Uraltz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra
693 059 392
uraltz@uraltz.com USURBIL



Pepa Bojo formatzaileak menopausiari eta bizi-aldaketei buruzko ikastaroa eskainiko du.

Otsailetik uztaileako eskaintza aurkeztu du Emakumeon Etxeak

Jabetza eskolako ikastaroak, liburu aurkezpenak, Martxoaren 8ko ekimenak, zerbitzuak... Otsailetik uztaileara prestaturiko eskaintza aurkeztu du Kalezarko Pelaioenean kokaturiko Emakumeon Etxeak. Lerrootan duzue hitzorduon zerrenda osoa.

Usurbilgo Udalak bi ohar plazaratu ditu deialdion harira; batetik, eskaintza honen egitaraua etxez etxe banatuko berri du, Udalberri aldizkariarekin batera.

Jabetza Eskolako ikastaroetan izena emateko epea

Bestalde, jabetza eskolako ikastaroetarako izena urtarriaren 27tik otsailaren 7ra eman ahalko da.

Emakumeon Etxeko eskaintza

Otsailak 11-maiatzak 27, astearteetan

- 17:30-19:00 Jabetza eskolako ikastaroa: Biodantza.
- Formatzailea: Eider Zuria-rrain.
- Hizkuntza: euskaraz.
- Zehaztasunak: "Biodantza" musika, mugimendua eta emozioa uztartzen dituen

jakintza bat da. Modu hone-tan, bakoitzak bere pentsa-mendu, sentimendu eta ekintzen kontzientzia hartzen

"JABETZA ESKOLAN IZENA EMATEKO EPEA OTSAILAREN 7AN ITXIKO DA"

du. Tratu onak ematen dira norberarentzat, besteentzat eta inguruan ere. Besteekiko enpatia garatzen da eta afektuan oinarritutako harremanak sortzen dira. Autoestimua hobetzen da eta maitatzeko gaitasuna handitzen laguntzen du. Adin guztietako emakumeei zuzendua dago eta ez da aurretik dantza egiteko esperientziarik behar".

Otsailak 14-martxoak 14, ostiraletan / Martxoak 20-maiatzak 22, ostegunetan

- 17:00-19:00 Jabetza eskolako ikastaroa: "Emakumeen osasuna heldutasunean: menopausia eta bizi-aldaketak".
- Formatzailea: Pepa Bojo.
- Oharra: gaztelaniaz.
- Zehaztasunak: "Tailerra gure bizitzako bigarren etapa modu sortzaile eta aberasgarrian bizitzen prestatzeko pentsatuta dago, aurkituko ditugun aldaketa fisiko, psikologiko, sozial, familiar eta materialei aurre egiten ikasiz. Aurreiritziak eta mitoak ere agertzen dira, eta horiek deseraiki egin behar dira. Tailer honekin gogoeta egiteko aukera dugu: nola zahartu nahi dugun, zeren beldur garen eta zerk kezkatzen gaituen. Menopausiatik aurrera zein aldaketa agertzen diren eta batez ere, nola egin diezaiokegun aurre horri guztiari etapa hau bete-betean bizi ahal izateko".

Otsailak 17-maiatzak 26, bi astelehenetan behin

- 18:00-20:00 Jabetza eskolako ikastaroa: batukada feminista Udarregi ikastolan.
- Hizkuntza: euskaraz.

Patrizia Latexea
• bazkariak EGUNERO
• afariak ostirala eta larunbata
© 943 362725 • © 688 690 361

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!
USURBILGO HORTZ KLINIKA
ANTTON BERNAL RUIZ DE OÑA
EKAITZ GARMENDIA MERINO RPS: 28/22
943 37 08 78 NAGUSIA 10, 1 C4 USURBIL

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak
urdaintzi@euskalnet.net
649 43 54 75
943 36 72 64
IT-ak egiten dira
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

→ • Saioen egutegia: otsailak 17, martxoak 3, 17 eta 31, apirilak 28, maiatzak 12 eta 26, ekainak 2.

• Zehaztasunak: "Musikara gerturatu eta ondo pasatzeaz gain, beste emakume batzuekin batera talde-lanean aritzeko, sormena landu eta autoestimua igotzeko. Denok garelako musika egiteko gai, baita gauza berriak sortzeko ere. Irudimena landu eta besteak entzuten ikasteko. Emakumeok kalera irten eta espazioak okupatu bitartean jendeari gozarazteko".

Otsailak 23, igandea

- 10:30 XXXV. Lilatoia, emakumezkoen lasterketa herrikoia Donostian.
- Zehaztasunak: Usurbilgo Emakumeon Etxeak talde bezala eman du izena. "Taldean izena emandako emakume guztiek elkarrekin hartuko dute parte".

Martxoak 5-6, asteazkena eta osteguna

- Musika elektronikoa eta feminismoa uztartzen dituen KRII Kolektiboak DJ ikastaro labur bat emango du.
- Izen-ematea otsailaren 17tik 28ra izango da, Emakumeon Etxearen bidez.

Martxoak 8, larunbata

- 21:00 Pikoteo musikatua Artzabalen. Martxoaren 5 eta 6ko "DJ ikastaroan parte hartutakoek ikasitakoak praktikan jartzeko aukera izango dute, eta haien ostean KRII Kolektiboko kideek ere parte hartuko dute".

Martxoak 20, osteguna

- 18:00 Iratxe Etxebarriaren "7.300 miligramo eszitalopram" liburuaren aurkezpena.

Maiatzak 15, osteguna

- 18:00 Uxue Alberdi Estibaritz idazlearen 'Hetero' (Susa) narrazio liburuaren aurkezpena. Ondoren, solasaldia partehartzailleekin.



Uxue Alberdi 'Hetero' narrazio liburuaz ariko da hizketan maiatzean.

Apirilak 11, ostirala

- 17:30 Emakume eta gizon subjektutasunaren inguruko formakuntza saioa.
- "Egingo den tailer proposamenean, teoria feminista eta queerretan egin diren proposamen desberdinak ikusiko dira, zeintzuek taillerrean parte hartuko duten gizon, emakume zein pertsona ez binarioen arteko botere harremanen lanketa ahalbidetuko duten".

Maiatzak 24, larunbata

- 19:00 Evaren Alabak antzerki taldearen "Ring" antzezlanaren Sutegiko auditorioan. Zehaztasunak: "Ring batean sartzen diren bi aktoreekin hasiko da antzezlanaren. Bata gizon jantzita dago eta bestea emakumez. Ikusleek ring-a inguratzen dute. Aurkezle batek pertsonaia iragarri eta ikuskizuna hasten da".

"MARTXOAREN 8AREN BUELTAN, PIKOTEO MUSIKATUA EGINGO DA ARTZABAL TABERNAN"

garri eta ikuskizuna hasten da".

- Hizkuntza: elebiduna

Zerbitzuak

Liburutegi feminista:

"Emakumeon Etxean liburu feministak daude eskuragarri: maileguan hartzeko aukera dago".

Aholkularitza juridiko eta psikosoziala:

"Zerbitzu honen bitartez, gai konplexuei buruzko informazio juridikoa eskaintzen dugu: banaketa, dibortzioa, emakumeen kontrako erasoei buruzko prozesu penalak, dibortzio prozesuetatik sortutako gatazkak, mantenu pentsioen ordainketa ezak, bisita erregimenen ez beteetzeak, atzeritartasunarekin

"AHLKULARITZA JURIDIKO ETA PSIKOSOZIALA ESKAINTZEN DA HILEAN BEHIN EMAKUMEON ETXEAN"

lotutako arazoak, etxeko langile zein gainontzeko langile emakumezkoen kalera-eteak, diskriminazioa, esku-bideei buruzko informazioa, laguntza sozialak eta beste-lako kontsultak".

- Zerbitzu egunak: otsailak 12, martxoak 12, apirilak 9, maiatzak 21, ekainak 11, uz-tailak 9.
- Orduetgia: 15:00-18:00.

Aholkularitza psikologikoa:

"Sexu aholkularitza zerbitzuaren erabilpen urria antzemanda, horren orde-z aholkularitza psikologikoko zerbitzua eskaintzea erabaki da. Zerbitzuaren xedea pertsonen autoezagutza, ahal-duntzea eta autonomia sustatzen duten tresnak ematea da, norbanakoaren ongizate-erako eta gizarte-eraldaketarako. Ikuspegi psikosozial, humanista eta transfeminista bermatuz eskaintzen da zerbitzua".

- Zerbitzu egunak: otsailak 10 eta 24, martxoak 10 eta 31, apirilak 28, maiatzak 12 eta 26, ekainak 9 eta 23, uz-tailak 7.
- Orduetgia: 15:00-19:00.

Zerbitzuon hitzordua eskatzeko:

- 943 377 112
- emakumeonetxea@usurbil.eus



Ander Lipusek zuzentzen du 'Miñan' antzezlan eta aktore lanak ere egiten ditu.

"Jendea hunkituta ateratzen da antzokitik"

ANDER LIPUS 'MIÑAN' ANTZEZLANEKO ZUZENDARI ETA AKTOREA

Amets Arzallusek eta Ibrahimak Baldek idatzitako *Miñan* (Susa) liburua antzerkira eraman du Ander Lipusek. Otsailaren 9an Kulturaldiaren baitan eskainiko dute Sutegin, arratsaldeko 18:00etan hasita. Sarrerak berehala agortu ziren.

'Miñan' liburuan oinarrituta dago antzerkia. Zein da kontaktzen den istorioa?

Liburua oso entzuna da Amets Arzallusek idatzi zuena Ibrahim Balderen ahotik ateratzen ziren hitz eder horiek bilduta. Duela bost urte idatzi zuen 'Miñan' liburua literaturara ekarrita. Istorio oso gogorra eta, aldi berean, oso poetikoa da. Liburuak protagonista du Ibrahim Balde, Ginea Konakrikoko mutil gazte bat, bere herrian bizi dena familiarekin eta bertako kontakizunak biltzen ditu. Anaiak alde egiten du Europara bidean. Bat-batean dei bat jasotzen du esanez anaia Libian dagoela, eta orduan Ibrahimaren bidaia kon-

tatzen du anairen bila. Gero, esaten diote anaia Mediterraneoan hil dela. Puntu horretan, ez daki zer egin eta ia ausaz Ibrahimak Europara amaitzen du atzera amarengana anaiarik gabe itzultzeko lotsaz. Pixka bat hori kontaktzen du oso modu gordinean eta oso momentu gogorak biziz: basamortua zeharkatzen du, hildakoak ikusten ditu, torturak jasaten ditu, esklabu modura tratatzen dute... orokorrean, animalia bat bezala tratatzen dute bidaia osoan hona iristen den arte. Irakurleak hori irakurri du, eta nik ere irakurri nuenean asko harritu ninduen eta oso gogorra iruditu zitzaidan.

Liburu batzuk antzerki, pelikula eta bestelako bilakatzen dira, baina beste batzuk ez. Zergatik aukeratu zenuen liburu hau antzezlan sortzeko?

Antzerkira eramatea erabaki genuen ez neure buruan zebilen ideia bat zelako, baizik eta liburuak hain arrakasta handia izan zuen, beste hiz-

"AMETS ARZALLUSEN KONPLIZATEA IZAN DUGU SORMEN PROZESUAN"

kuntza batzuetara ere itzuli zuten liburua: galegoz, katalanez, italieraz, frantsesez, ingelesez, gaztelaniaz... lehen itzulpena ingelesez izan zen. Lehen itzulpena ingelesez izan zen "Little brother" eta itzulpen hori egiteaz Timberlake Wertebaker arduratu zen. Nik emakume hura ezagutzen nuen, dramaturgoa da eta antzerki idazlea da. Ordurako berekin zerbait egiteko asmotan nabilen, eta berak esan zidan 'Miñan' antzerkira eramateko asmoa zeukatela. Nik aipatu nion pena zela euskaraz pentsatu eta sortutako literatura obra bat lehendabizi ingelesez eramatea antzerkira. Euskal Herrian antzezlan hori berezko hizkuntza izatea beharrezkoa eta polita izan zitekeela esan nion. Ingeleszko estreinaldia atzeratu egin zen Londresen pandemia zela eta, orain maiatzean estreinatuko dute. Nik aipatu nion euskal aktore beltzak ezagutzen nituela eta posible izan zitekeela obra prestatu eta estreinatzea.

Nolako izan zen antzezlan sortzeko prozesua? Egileekin kontaktuan egon zinen?

Timberlakekin hitz egin ondoren, egileekin hitz egitea izan zen hurrengo pausoa baimena eskatzeko obra antzerkira eramateko. Hasiara batean ez ziren oso aldekoak, batez ere, Ibrahimaren zauri horiek berriz ere irekitzea delako. Beldur ziren istorioa komertzializatuko ote zen, istorioa saltzea zela sentitzen zuten. Gero konturatu ziren garrantzitsua zela gaiaren inguruan eta zauri horien inguruan hitz egitea. Beraz, baiezkoa eman ziguten. Amets eta Timberlakek ondo ezagutzen dute elkar, Timberlakek uda Saran pasatzen duelako. Baiezko horrekin taula gainera eraman genuen, eta gainera, Ametsen konplizitatea ere izan dugu sormen prozesuan. Antzerkiari beste dimentsio bat eman dio horrek.

→ **Askotan liburuak eta antzezlan edo pelikulak konparatzean, aldaketak izaten dira. Kasu honetan ere hala izango da?**


Antzerkiaren amaierak beste biribiltasun bat du. Ibrahimaren odisea ez da bukatzen 'salvamiento maritimokoek' hartzen dutenean, liburuan bezala. Ibrahimaren benetako odisea ez da momentu horretan bukatzen. Espainian eta Euskal Herrian bizi izan zuen paperik gabeko bizitza hori kontatu nahi nuen, benetan garrantzitsua iruditzen zaidalako ilegalitate horretan bizi izan zuena kontatzea; Ibrahimaren benetako odisea hamar urte pasa ondoren, ama eta bi arreba bisitatzera bueltatzen denean.

Euskarri aldaketak zein eragin izan du istorioa kontatzeko moduan?

Antzerkia beste euskarri bat da eta liburuko pasarte guztiak ez dira biltzen, bestela antzezlanak lau ordu iraungo zuen. Oso fidelak izan gara Ibrahimaren istorioarekiko, bertan dauden elkarrizketa zein pertsonaiak errespetatu ditugu. Zuzendari paperetik argi neukan errespetatu egin behar nuela ibilbide tragiko hori. Ibrahimaren ahotsa errekuiperatu eta antzerkiaren lengoaiari irakurri dugu.

Nolako eszenografia espero dezakegu? Oso minimalista izango da edo atrezzoak eta irudiak garrantzia izango du?

Eszenografia oso sutila da, irudi asko ekartzen ditu, baina xumetasunetik. Basamortua, kartzela, tortura gela... Hori guztia biltzen dugu argia eta arropa erabilia oso modu xumean. 'Miñan'-en hori kontatu nahi izan dugu, baina literaturatik haratago. Antzerki-aktore foko handia dago lau aktorek antzeztuta. Bakoitzak hogeit hamar pertsonaia inguru egiten ditugu, eta erritmo handia du. Bisuala eta plastikoa da, oso gorpuztua.



"Oso fidelak izan gara Ibrahimaren istorioarekiko".

Nik antzerkia nola ikusten dudun erakusten du eta 'Miñan' irakurri nuenean sentitu nuen hori erakusten du. Irudimena erabilia aukera emango diogu ikusleari mundu hori irudikatzeke eta istorioan barneratzeke.

Liburua eta antzezlanak konparatzeari zer deritzozu?

Ezinezkoa da konparatzea. Batzuei gehiago iritsiko zaie eta beste batzuei gutxiago.

"BASAMORTUA, KARTZELA, TORTURA-GELA... ESZENOGRAFIA OSO SUTILA BALIATU DUGU"

'Miñan' duela bost urte plazaratutako liburua da, beraz, batzuek aspaldi irakurriko zuten eta beste batzuek freskoago izango dute; bada istorioa gogoratzeke momentu egokia. Oso pertsonala eta subjektiboa da. Esango nuke kontua ez dagoela gustatu edo ez gustatzean, baizik eta istorioan sartzean. 51-52 emanaldi egin ditugu eta jada 15.000 pertsonak ikusi dute. Badago zerbait, jendea, oro-

"IBRAHIMAREN AHOTSA ERREKUPERATU ETA ANTZERKIAREN LENGAIARA EGOKITU DUGU"

korrean, oso hunkituta ateratzen da. Hori da guk bilatzen duguna, baina gustatu zaien edo ez oso subjektiboa da eta ez naiz horretan sartuko. Kontzientzia piztu eta hausnarketarako tarte bat bideratzea da antzezlanaren helburua. Erroka bat bazegoen, liburua oso ondo idatzita dago, jende askok irakurri du eta horrek ardura sortzen du. Ardura horrekin lan handia egin dugula esango nuke eta emaitza bat ere lortu dugu. Jende asko ari da hurbiltzen antzerkia ikustera eta oso hunkituta ateratzen da. Liburua irakurri nuenean ere hunkitu egin nintzen, eta talde moduan hori bilatu nahi genuen gaitzerekoengan ere.

Estreinalditik hona bost bat hilabete pasatu dira. Nolako harrera ari da izaten antzezlanak?

Oso liburu entzutetsua izan da eta horrek bidea erraztu digu. Jendea animatzen ari da antzokira etortzera eta ohikoa ez bada ere, Sold Outak izaten ari gara ia antzoki guztietan. Pozgarria da guretzat halako harrera ona jasotzea. Oxala halako harrera izango bagenu antzezlan guztietan. Literaturan fenomeno bat izan da eta antzerkian ere fenomeno bat izaten ari da 'Miñan'. Orokorrean, euskal gizartean haratago joan behar dugula uste dut, elikatzen ari garen aktore berrien etorrera eta kultura esparru hori zenbat eta zabalago izan, orduan eta hobeto. 'Miñan'-ekin gertatzen ari da eta ea beste musika talde, liburu, antzezlan eta abarrekin ere gauza bera gertatzen den. 20-25 pertsona ibili gara lanean proiektuari forma ematen: Arte Dramako lankideak, aktore eta zuzendari laguntzaileak, teknikariak... eta oso eskertuta nago beraiei. Eta nola ez, jakina, eskerrak eman taldeko aktoreei: Sambouk Diaby, Eihara Fernandez de Larrea eta Mikel Kaye. Talde-lan ederra egin dugu.



Zuhaitz Gurrutxaga eta Ander Izagirre Sutegin izango dira martxoan.

Udal liburutegiko hurrengo deialdiak

Xake topaketaren eta otsailaren 5eko Saioa Bikandiren "Azalerako lpuinak" emanaldiaren ondotik, beste bi hitzordu antolatu ditu Sutegi udal liburutegiak martxorako.

Martxoak 10, astelehena

- 19:00 XXV. Gaztelarazko solasaldia, Ana Merino herriki-deak gidatua. Monika Zgustovaren *Soy Milena de Praga* (Galaxia Gutenberg) nobela aztertuko da bertan.
- Oharra: liburua aurretik irakurri nahi dutenek, aleak eskuragarri liburutegian.

Martxoak 18, asteartea

- 18:30 Ander Izagirreraren eta Zuhaitz Gurrutxagaren Sub-

campeón (Libros del K.O.) liburuen aurkezpen-solasaldia. Argitalpen honen bi egileak Sutegira bertaratuko dira.

- Oharra: liburua aurretik irakurri nahi dutenek, aleak eskuragarri liburutegian.

Izen-ematea

- Izen-ematea: aurrez, Sutegi udal liburutegian bertan.
- Antolatzailea: Sutegi udal liburutegia.

"Heriotzak Eduardo du izena" antzezlanaren Sutegira iritsiko da

Formol Laborategiak eta Susa Argitaletxearen poesia erreztaldia otsailaren 21ean izango da 20:00etan Sutegiko auditorioan.

'Munduko Poesia Kaierak' poesia liburu bildumak 10 urte betetzen dituen honetan, Susako lagunek bizirik dauden poetak hil nahi zituztela esan zieten Formoldarrei. Haiek metaforikoki esan omen zuten, baina, Formolekoek lana serio hartu dute... Heriotzak Eduardo du izena esperimentu bat da, soinu instalazioa, performancea eta antzerkia uztartuko dituen, fisikoa eta birtuala denaren arteko mugak esploratuz eta publiko eta eszenatikoaren arteko

barrera tradizionalak ezabatuz. MPK jolas eszeniko bilakatu da. Poemek gai unibertsal eta sakonak lantzen dituzte, hala nola, bizitza eta heriotza, eztanda eta bakea, gelditasuna eta bibrazioa edota isiltasuna eta kantua bezalako dualidadeak. Horiek proposamen dramaturgiko bilakatu dira, bizipen sentsozial bat eragiteko paisaia (edo pantaia) bat marraztuko da oholtzan, bideo-joko batean bezala".

Otsailak 21 ostirala

20:00etan Sutegin. Sarrerak 8 eurotan eskuratu ahalko dituzue aurrez, usurbilkultura.eus plataforman.

"Erleen polinizazioa frutagintzan", hitzaldia Alkartasunaren eskutik


Alkartasuna Usurbilgo base-rritarren kooperatibak eta Sagardoaren Unibertsitateak gai horri buruzko hitzaldia antolatu dute otsailaren 13an 18:00etan Potxoenean. Mattin Jauregik bideraturiko saioan, "frutagintzan polinizazioa bermatzeko erleek duten garrantzia azalduko da. Erleen

presentziarik gabe, fruta-ekoizpenak asko sufrituko luke, eta horrek ondorio ekonomiko eta ingurumen-arazo larriak eragingo lituzke". Hitzaldirako izena aurrez eman ahalko da doan, Alkartasuna kooperatibaren 943 361 114 telefono zenbakian edo alkartasuna.eus atarian.

"Robotia", haurrentzako zinema euskaraz

Otsailaren 16an eskainiko dute, Udalak eta Ziortzak azaroaz geroztik negu parte honetarako antolaturiko hileroko euskarazko zine zikloaren hurrengo proiektzioa. "Robotia" izena du 17:00etan Sutegiko auditorioan ikusi ahalko den filmak. 3,50 eurotan eskuratu ahalko dira sarrerak aurrez, usurbilkultura.eus plataforman. "An-

droidiek mendean hartutako mundu batean, neska batek futboleko jokatzearekin amets egiten du, familiak debekatu dion arren. Robotiak lankidetzatza, adiskidetasuna, aniztasunarekiko errespetua eta genero berdintasuna bezalako balioak transmititzen ditu, pertsonaia maitagarri, dibertigarri eta ausarten eskutik".



'Robotia' filma otsailaren 16an ikus ahal izango da Sutegin.



Irisasi BTT-ko parte hartzaileak Andatarantz abiatu berritan.



Helmugan, antolakuntzaren frontoiko gunean bildu ziren txirrindulariak.

Hotza baino, haizea izan da protagonista aurtengo edizioan

Irisasi BTT Hotzak Akabatzen probaren hamahirugarren edizioa egun haizetsu batekin egokitu zen.

Baldintza klimatiko desegokiei aurre egin beharrean aurkitu izan dira aurreko urteetan;

temperatura oso baxua, elurra, euria... Aurtengoan, ordea, haizea izan dute bidelagun

Irisasi BTT Hotzak Akabatzen proban izena emandakoek. Urtarrilaren 26an izandako hitzordurako, abisu horia emana zegoen. Parte hartzaileen artean zalantzarik bazen egiterik izango ote zen lasterketa. Bistan denez, ordea, bai; aurreikusitako moduan egin zuten.

Ehunka txirrindulari abiatu ziren goizeko 9:00etan Mikel Laboa plazatik Andatza alde-
ra, antolakuntzak bertan zehaz-

tuak zituen ibilbide luze eta motza osatzera. Antolatzaileek ekimen honen hamahirugarren edizioa ahalbidetu zutenei eskerrak helarazi dizkiete. "Irisasi BTT Hotzak Akabatzen proba aurrera eramaten laguntzen diguten boluntario guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu". Izan ere, "haien laguntzarik gabe, ezingo genuke aurrera eraman. Urtero urtero laguntzeko prest egoten dira, ezer eskatu gabe trukean".

ERLEEN POLINIZAZIOA FRUTAGINTZAN:

HITZALDI TAILERRA

Frutagintzan polinizazioa bermatzeko erleen garrantzia.

Elerik gabe fruta ekoizpena murrizten da, ondorio ekonomikoak eta ingurumen arazoak eraginez.

Antolatzaileak:

Alkartasuna Usurbilgo baserritarren kooperatiba eta Sagardoaren Unibertsitatea.



OTSAILAK 13
OSTEGUNA

18:00 Potxoenean

Irakaslea:

Mattin Jauregi
Balerdipeko Erleak

Izen ematea: Doan

Alkartasunako telefonoan
943 361114 eta
alkartasuna.eus











Alkartasuna Kooperatiba Atallu industrialdea 26, Usurbil 943 361 114 www.alkartasuna.eus alkartasuna@usurbil.com



Boleibol taldeko entrenatzaile eta jokalaririk. Lau urteotan lau talde osatzera heldu dira.

"Lankidetzan aritzea posible dela erakusten ari gara"

Usurbil F.T. futbolarien eta baita boleibol jokalarien aterpea izango da aurrerantzean. Izan ere, bi aldeek klub horretan integratu eta lankidetzan aritzea adostu dute. Kirol bilgune honek bi atal izango ditu hemendik aurrera.

Kulturgintzan sarriago ikustera ohituak egon arren, kirol arloan ere baden lankidetzaren adibide argi baten berri segidan. Izan ere, elkarlanerako borondateak batu ditu Usurbilgo boleibol eta futbol taldeak. Jada aterkipe berean aritzea adostu dute; Usurbil F.T. klubaren baitan. Elkarlan horren sustatzaile diren bi taldeetako ordezkarietara bildu gara.

Hutsetik

Duela lau urtera arte ez zegoen boleibolaren arrastorik ere Usurbilen. Ordutik talde bat osatzetik lau izatera igaro dira. Hazkuntza ez da soilik jokalarikopuruan nabarmendu, haien bilakaera espazio alda-

ketarekin eta eman dituzten bestelako urratsekin ere lotua dago. Ondorioz, oso hurbiletik bizi izan dute zer den hutsetik hastea. Boleibolean jokatu nahi izan zuten gazte txoen gurasoak izan dira hasieratik kirol jardueran honetan trebatzeko aukera bermatu nahi izan dutenak baina ez dute lan erraza izan. Lehenengo urtean, "lekua eta materiala" behar zutela oroitarazi digute. Eta lortu zuten. Hasieran, "astean behin ikastolan" hasi ziren entrenatzen, jarduerak honekin harremantzen. Partidarik jokatzetik ez zuten, baina kirol jardun honetan aritzeko aukera izatearekin oso gustura zeuden. "Urtebete geroago eskatu genuen ea

posible zen kiroldegian entrenatzea eta hasi ziren partidak jokatzeko", oroitarazi digute gurasoek.

Erabaki beharra

Kadeteen mailako taldearekin ekin zioten ibilbide honi, "Hernaniren eta Eskola Kirolaren bidez. Zein izan zen arazoa? Gure taldea jubentzetan sar-

"ZEIN ZEN ARAZOA? GURE TALDEA JUBENILETAN SARTZEKO KLUBA BEHAR GENUEN"

tzerakoan kluba behar genuen. Une horretan hasi ginen kluba bilatzen". Hortxe heldu zen une erabakiorra. Bi aukera zituzten seme-alabek boleibolean jokatzeko segi ahal izatea nahi bazuten; "edo guk sortu kluba edo beste klub batean sartzea, sekzio moduan".

Taldea handitzen joan da; aipatu moduan, jokalarikopurua izateko lau izatera igaro dira denbora tarte honetan. Izan ere, egun, "jada bagara lau talde, alebinak, infantilak, kadeteak eta jubentzetan".

Usurbil F.T. barruan

Usurbil F.T.-n sartzeko, guraso talde honen, futbol klubaren, Hernaniko taldearen eta Udalaren artean zubi-lana egin duen Eskola Kirolko arduradun Iban Maritxalar eskertu nahi dute bereziki, hasieratik Hernaniko taldearekin jasotako laguntza gorai patzearrekin batera. Maritxalarren eskutik izan zuten Usurbil FT-k boleibol taldeak bizi zuten egoeraren eta haien laguntza behar berri. Hasieratik izan zuten laguntzeko prestasuna. Eusko Jaurlaritzarekin hartuemanetan jarri zen Usurbil F.T.-ren zuzendaritza eta boleibol taldea klubean sartzeko aukera bazutela jakinarazi zieten. "Ez zen gauza handirik egin beharrik", gogorazi digute herriko futbol taldeen bilguneetik. Hala, ia ziti, "gure estatutuaren futbol dago baina bigarren modalitate gisa boleibola".

Hori hala egin izan ez balute, "lau talde izanda orain klub bat sortu beharra izango zuten,

"JADA BAGARA LAU TALDE; ALEBINAK, INFANTILAK, KADETEAK ETA JUBENILAK"

bizpahiru urte barru ze egoe-ratan egon daitezkeen jakin gabe". Izan ere, oroitarazi diguten moduan, "haurren kopurua murrizten joango da. Lan izugarria egin orain bizpahiru urte agian desagertzeko?". Arrisku horren aurrean, Usurbil F.T.-koentzat boleibolekoak klubean sartzea "ez da lan handia izan".

"Elkarrekin gaude"

Egun, klub bakarraren eta beraren baitan dabilta denak batera. Bakoitzak bere atala du, nork berea kudeatzen segitzen du orain arte bezala, "baina elkarrekin gaude" eta hori iruditzen zaie garrantzitsuena. "Hurrengo denboraldian boleibolekoek haien kluba sortu nahi dutela? Ez dago arazorik. Orain arte bezala lagunduko diegu", nabarmendu dute Usurbil F.T.-tik. Bitarte horretan, elkarrekin dauden artean, boleibolekoek haien jarduna egitea da bermatu eta lehenetsi nahi dutena.

Herrian jokatzearen garrantzia

Gurasoak ere pozik dira aukera honekin. "Bertigoa eragiten zigun klub bat sortu beharrak". Horregatik, esker-tuak daude eman zaien irtenbidearekin, hasieran "dena zen eta berria guretzat". Horregatik, ezinbestekotzat jotzen dute Usurbil F.T.-tik jasotako laguntza. "Seme-alabei eta guri lasaitasuna eman digu". Pozik dira denak hartutako erabakiarekin. Hala izan ez balitz, "herritik kanpora joan beharko zuten jokatzera edo kluba sortu beharko genuen".

**"HERRITIK
KANPORA JOAN
BEHARKO ZUTEN
JOKATZERA EDO
KLUBA SORTU
BEHARKO GENUEN"**

Futbol kluba ere jakitun da, noski, "hasierak gogorak" izaten direla. Gurasoen asmoa, "geure seme-alabek, hemen inoiz egin ez den kirol jarduerara batean aritu eta ondo pasatzea da, herrian bertan izanda, askoz hobeto". Izan ere, gogorarazi digutenez, "adin horietan oso garrantzitsua da gaztetxoentzat hemen geratzea".

Alde biek lankidetzaren balioa goraiatu diote NOAUA-ri. Jokaleku desberdin bana (Oiarde kiroldegia eta Harane) duten bi kirol jarduerara desberdinak izanik, "elkarrekin gaude. Lankidetzan aritzea posible dela erakusten ari gara. Urte asko daramagu Usurbilen entzuten kirol elkarte bat sortu behar dugula. Une honetan, bai boleibol eta bai futbol taldeak ari gara erakusten elkarlanean aritu gaitezkeela". Bide horretan sakontzen segiko balitz, argi dute, "gaztetxoei egingo lioke mesede", taldeen antolaketa lanei eta belaunaldi berrien herriarekiko atxikimendua estutzen lagunduko luke. "Nahi izatea da kontua", Usurbil F.T.-tik aipatu digutenez. Horretarako, ordea, klubetik "kirolari garrantzi handiagoa eman beharko litzaikeela" uste dute. Gazteei kirola egiteko aukera ahalbidetu behar zaiela diote. "Kirola egin nahi duen gazte orori bere herrian egitea erraztu behar zaio. Guk hala egiten dugu futboleko jokatu nahi duen ororekin. Kanpora joatea badakigu zer den; orduetegi aldetik eta ikasketekin ezin uztartu eta kirola egitera uztera bultzatzen du aukera horrek".

**"KIROLA EGIN NAHI
DUEN USURBILGO
GAZTE ORORI BERE
HERRIAN EGITEA
ERRAZTU BEHAR
ZAIO"**



Hans Romero da taldeko entrenatzaileetako bat, bestea Garazi Tapia.



Oiarde kiroldegiko kirol pistan entrenatzen dute boleibol taldeek.



Boleibolak lau talde ditu egun Usurbilen.



Pozik dira boleibol taldeak, jokatzeko emandako irtenbidearekin.



"Usurbilen pixkanaka boleiaz hitz egiten hasiak gara", adierazi digu boleiboleko taldeko entrenatzaile Hans Romerok.

"Boleibola talde kirol bat da, kuadrilla osatzen duzu"

HANS ROMERO ETA GARAZI TAPIA BOLEIBOL TALDEKO KIDEAK

Urte gutxian, herrian presentziarik ez zuen kirol jarduera izatetik lau taldeko komunitatea eraikitzen igaro da boleibol taldea. Taldearen sorreran eta entrenatzaile gisa dabilen Hans Romerorekin eta jokalaria gisa eta egun prestatzaile gisa diharduen Garazi Tapiarekin bildu gara.

Urteotan nabarmen hazi da taldea.

Garazi Tapia: Hasieran, kadete talde bat zen. Gaur egun, alebin, infantil, kadete eta jubenetan talde bana dugu.

Nolatan izan du taldeak hain hazkuntza azkarra?

Hans Romero: Elkarlanean ari gara jokalaria, entrenatzaile eta gurasoak. Futbol klubekoek ere lagundu digute klub bezala hazten. Gaztetxoek helduenak dituzte erreferente. Garazik gurekin kadeteen mailan jokatu zuen eta aurten, Hernanin dago eta gurekin entrenatzaile txikiarekin. Kirol jarduera hau arreta deitzen ari da herrian, jarduera desberdin gisa.

Nolakoa izan da Garazi, jokalaria izatetik entrenatzaile izateko jauzia?

G.T.: Aurreko urtean Hernanira mugitu behar nuen, baina aurten jada Hansek Usurbilen esan zidan infantilen talde bat zegoela. Orduan, baiezkoa eman eta etorri nintzen. Oso gustura nabil, bi urte jada infantilekin.

Nola ikusten duzu belaunaldi berria?

G.T.: Potentzial handia dute. Oso ondo ari dira. Infantilek adibidez, udan boleia egiten ari direla esan didate eta geroz eta gehiago ikusten da jarduera hau.

Boleibolak zer nolako garrantzia du zuen bizitzetan?

H.R.: Lehen jokalaria izandakoa naiz. Gaur egun, niretzat etapa berri bat da entrenatzaile gisa aritzearena, ez bainaiz lan honetan jardun aldez au-

retetik. Niretzat zeregin hau, ikasi dudana zerbait besteei transmititzea, beste norbaiti irakastea ederra da. Garazi nirekin zen, taldeko kapitaina zen, onenen artean zen. Gaur egun, entrenatzaile gisa oso ondo ari da transmisio lan horretan eta hori da garrantzitsuenak. Badira jokalaria entrenatzaile titulua atera dutenak, txikiak entrenatzen jarrai dezaten.

"GARRANTZITSUA DA KIROL JARDUERA EZBERDINEN AUKERA IZATEA HERRIAN"

G.T.: Garrantzia ikaragarria du. Asteburuetan partida izatea oso gustuko dut, ikaragari ondo pasatzen dut. Kadeteetan nengoenean partidak hainbeste ez genituen irabazten baina ikaragari ondo pasatzen nuen eta infantilekin ere bai.

Komunitate bat eratu dugu da goeneko ezta?

H.R.: Komunitate nahiko handia da. Usurbilen pixkanaka boleiaz hitz egiten hasiak gara. Garrantzitsua da kirol jarduera ezberdinen aukera izatea.

Usurbil F.T. barruan zaudete egun. Zer moduzkoa izan da aldaketa hau?

H.R.: Ateak ireki dizkigute eta oso gustura gaude, denean laguntzen gaituzte. Proiektu pare bat ditugu haiekin eta oso ondo gaude, egia esan.

Denboraldia amaitu bitarte, zer erronka dituzue?

G.T.: Infantilekin oso ondo gabiltza. Aurrendenboraldian partida denak irabazi zituzten. Iaz partida bakar bat ere ez zuten irabazi. Aurten aldaketa handia izan dute. Oso ondo goaz, hala segi dezatela. Euskadirako partida galdu genuen baina berdin dio, oso ondo jolastu zuten. Hala hobetzen segi dezatela.

H.R.: Infantilak ondo doaz, kadeteak ere bai. Jubenilak lehen urtean ari dira eta maila berrira oso ondo ari dira ohitzen. Kontuan izan, biz-pahiru urte maila horretan daramaten neskekin ari dira lehiatzen.

Zer esan zer kirol egin ez dakienari? Zer eskaini diezaiokete boleibolak?

H.R.: Animatu dadila probatzen eta gustuko izanez gero segi dezala. Talde kirol bat da, kuadrilla osatzen duzu. Kirola egitea osasuntsua da eta taldean bada are gehiago, jendearekin inplikatzeko zara. **G.T.:** Ez da hain ikusia, polita da eta probatzeko.



AEK Etumeta euskaltegiko ikasle talde bat, gabonetako oporren ondoren, eskolara itzuli berrian.

AEK Etumeta Literatura Lehiaketa

Arau orokorrak:

- Ez da inolako pertsona zein kolektiboren aurkako eduki iraingarririk onartuko. Baldintza guztiak onartzea dakar parte hartzeak berak, lehen hau barne.
- Parte hartu ahal izateko beharrezkoa da 18 urte beteak izatea lana bidaltzeko unean, eta Usurbilen erroldatua egotea edota Etumeta AEK euskaltegian matrikulatua.

Lanak:

- Ipuin laburrak izango dira, 650 hitz, gehienez.
- Times New Roman letran idatziak, 12 neurrian, espazio bikoitzarekin.
- Gai librean idatziko dira.
- Lanak aurrez argitaratu gabeak izango dira, baita lehiaketa batera bidali gabeak ere.

- Euskaraz idatziak behar dute. Tokian tokiko hizkera ere erabili ahal izango da.

Lanen aurkezpena:

- Bi dokumentu bidaliko dira usurbil@ae.eus helbidera:
- 1. dokumentua: Ipuina bera, marka identifikagarririk gabe, PDF formatuan. Artxiboaren izena ipuinaren izenburua bera izango da: "IZENBURUA.PDF".
 - 2. dokumentua: Parte hartzailearen datuak, hau da, izena, bi abizenak, jaiotze data, telefono zenbakia eta helbide elektronikoa, PDF formatuan. Artxiboaren izena ipuinaren izenburuarekin berarekin identifikatuko da: "IZENBURUA.DATUAK.PDF".
 - Etumeta AEK arduratuko da epaimahaikideei lanak bidaltzeaz, identifika ez ditzaten, baita, epaia ebatzi ondoren,

hura bere egilearen datuekin lotzeaz ere.

Epeak

- Lanak bidaltzeko: otsailaren 3tik apirilaren 11ra arte, biak barne.
- Sari banaketan egingo da irabazlea publiko, irabazleari emailez jakinaraziko zaio aurretiaz.
- Sari banaketa ekainaren 4an egingo da.

Epaimahaia

- Epaimahaikideak hiru izango dira. Haien erabakia aldazina izango da.
- Irabazle bakarra egongo da, eta gehienez ere bi aipamen; bakoitzari diru saria eta oroigarria emango zaizkio. Epaimahaia sariren bat emangabe utzi dezake, merezitako lanik ez dagoela erabakiko balu.

Sariak

- Txapelduna: 150 euroko baliadun saskia, Hurbilagoren eskutik
- Aipamena: 70 euroko saskia, Hurbilagoren eskutik.

- Parte hartzaile guztiak gonbidatuta egongo dira sari banaketara, eta oroigarri bana emango zaie.

Argitaratzea

- Parte hartzaileek onartzen dute euren lanak argitaratu ahalizatea NOAUA! aldizkarian eta Etumeta AEKren sare sozialetan.

Ate irekiak Zumarte Musika Eskolan

Musika Eskolaren 40. urtemuga ospakizun betean dira musika eskolan. Ekainera arte hilero ekimenak antolatzen segiko dute. Otsailekoa hileren 15erako iragarri dute goizeko 11:00etan; ate irekien eguna. Musika eskola barrutik ezagutzeko aukera izango da. Horrez gain, marakak (4-7 urte artekoentzat), flauta (8-10 urte artekoentzat) eta korneta (11-12 urte artekoentzat) sortzeko tailerretan parte hartzeko aukera izango da. Hitzordurako izena otsailaren 9a baino lehen eman beharko da, bulegoa@zumarte.eus helbidean. Bertan zehaztu behar dira partehartzailearen izen-abizenak eta adina.



·EGUNEKO MENUA
·KARTA
·RAZIOAK
·HANBURGESAK
·BOKATAK

ARTZABAL
BASERRIA · JATEETXEA
www.artzabaljateetxea.com 943 36 91 39



txirriStra
·PLATER KONBINATUAK
·BOKATAK ·PINTXOAK

TABERNA

Kontseju zaharra, 13 **Tel 943 36 04 66**



Usurbilgo Elkargunea eraikitzen hasteko prozesua 2021ean hasi zen.

Elkarguneari lotutako hainbat gai aurkezteko data finkatu dute

Otsailaren 22an batuko dira, eguerdiko 12:00etan, Sutegiko auditorioan. Besteak beste, proiektuaren izena ezagutaraziko dute.

Barne lanketan aritu dira orain arte. 2024. urte amaieran antolatutako topaketan bidez, duela bizpahiru urte hasitako lankidetzan jarraitzen zutela jakinarazi eta egitasmoa eraikitzen segi eta herriratzeko topaketak antolatu zituzten, tailer, kantu saio, erakusketa, azoka edota asanbladekin.

Beste urrats bat ematera doaz laster, plazaratze bide horretan hain zuzen. Elkargunea egitasmoaz ari gara. Proiektu horri buruzko hainbat xehetasun plazaratzeko aurkezpen ekitaldia iragarri dute sustatzaileek otsailaren 22an, eguerdiko 12:00etan Sutegiko auditorioan.

Ekitaldiko deitzaileak hain zuzen, Udala, Gaztelekuak, Ziortza Gazte Elkarteak, Kulturgunea eta Aztarrika Gazte Asanblada dira, Elkarguneko bultzatzaileak aipatu moduan.

Urte garai honetan hasi zuten iaz, udaberri amaierara arte Elhuyarrek dinamizaturiko partaidetza prozesua. "Prozesu hark emandakoak ez ezik, eraikinaren proiektua, izena, marka eta hurrengo urratsen berri emango dute" hilaren 22an, deitzaileek iragarri dute.

Plazaratuko dituzten gai horien artean, aurreratu dute, besteak beste, proiektuaren izena ezagutaraziko dute. Izan ere, iaz, Elhuyar bidelagun zutela, "proiektuari izena jartzeko ekarpenak jasotzeko epe bat ere jarri zuten. Izen horren berri ere emango dute, aurkezpenean". Horrekin batera, eraikinaren proiektua bera, marka ere aurkeztuko dute, aurrera begira eman asmo dituzten hurrengo pausoak zeintzuk diren jakinaraztearekin batera.

Eraikitze lanak 2026an

Izan ere, bi prozesu jorratu dituzte azkenaldi luzean; baitetik, eraikinaren beraren proiektua eta egitasmoaren beraren edukia. Gogoan izan, anbulatorio ondoko zelaian kokatuko dute Elkargunea. Hala adostu zuten aipatu herri eragileek eta Udalak, duela urtebete kokagune horretan bertan egindako agerraldian. "Udalak, eraikin berriak egin baino lehen, erabiltzen ez diren

UDALAREN AURREIKUSPENAREN ARABERA, 2026AN HASIKO DITUZTE ELKARGUNEA ERAIKITZEKO LANAK

eraikinak berritzea du irizpide nagusizat, baina, kasu honetan, Usurbilen ez dago eragileek irudikatutako espazio berri horren ezaugarriak betetzen dituen areto edo eraikinik, eta, beraz, berri bat egin behar da", gogorarazi dute. Gune horren beharra aldarrikatu izan dute baita, Elkarguneari kide diren Gaztelekuak, Ziortzak, Kulturgunek eta Aztarrikak, hainbat egitasmo bideratzeko edota baita eragile hauen guztien arteko lankidetzak sustatzeko.

Horren harira, Udaletik berri eman dutenez, "Udalak, orain, eraikinaren exekuzio proiektua idazteko eta obra zuzendaritza esleitzeko lizitazioa abiatuko du: ondo bidean, udaberriko aukeratuta izango du talde irabazlea. Horren ostean, esleipendunak exekuzio proiektua idazteko sei hilabeteko epea izango du, eta hori eskuratu-takoan abiatu ahal izango du udalak obrak esleitzeko prozesua. Udalaren aurreikuspenen arabera, 2026an hasi ahal izango dira obrak".

Usurbilgo jaiak antolatzen hastera doaz

Otsailaren 13rako iragarri dute jai batzordearen lehen bilkura, arratsaldeko 17:00ean Potxoenean. Lehenengo erabakietako bat jaien iraupena zehaztea izango da, festak noiz hasi eta noiz amaituko diren. Horrez gain, ekitaldien eskaintza zehazteko lanketan murgilduko dira. "Santixabel jaien antolaketan parte hartu nahi duten guztientzako bilera irekia izango da", nabarmendu dutenez.



NOAUA

Gipuzkoako Orientazio Ligako lehen proba

Liga horri igande honetan ekingo zaio Usurbilen.

Otsailak 9, igandea

- 09:30 Harrera gunearen irekiera Askatasuna plazan.
- 10:00 Lehen irteerak.
- 12:00 Azken irteerak.
- 14:00 Helmuga itxiera.
- Irteera: Askatasuna plaza.
- Ibilbide motak:

-Gorria: tekniko eta sasoi onean egotea eskatuko du.

-Laranja: ez hain tekniko, baina orientatzeko ezagutzak eduki beharko dira.

-Horia: hasiberrientzat eta familientzat.

- Izen-ematea: banaka nahiz taldekakoak, otsailaren 6ko gaueko 22:00ak arte, eu.deporticket.com helbidean.

Informazio gehiago:

info@gotorientazioa.org
gotorientazioa.org



ARGAZKIA: ION KORTA

Euskadiko txapelduna eskaladan

Open formatuko lehia irekia eta Euskadiko Txapelketa jokatu ziren aurreko astean Donostiako The Factory Boulder rokodromoan. Markel Korta Fernandez usurbildarra bere kategoriako onena izan zen.

"Final borobil bat ondu zuen Markelek arratsaldean", bere etxeok aditzera eman digutenez. Horri esker, "Factory Open Boulderra irabazi eta

Euskadiko Txapelketa eskuratu zuen 14 urtez azpikoen mailan".

Otsailean eta martxoan rokodromo ezberdinek antolatutako lehiaketa ugari jokatu dira eta baita Gipuzkoako federazioak antolaturikoak ere. "Martxo bukaera aldera hasiko da Espainiako Kopa eta bertan izango da Markel Euskal Selektioarekin".

Ibai-Ondo Backyard-erako entrenamendua

Apirilaren 12ko astebururako estreinakoz Santuenean antolatzen ari diren Ibai-Ondo Backyard probarako entrenamendu saio irekia iragarri dute otsailaren 15ean. 9:00etan abiatuko da proba bezala, Santueneko frontoitik. Hiru orduko entrenamendu saioa izango da. Amaieran, hamaietakoa eskainiko dute auzoko Ibai-Ondo elkarteak. "Santuenean izango gara "backyard" entrenamendua egiten, hiru orduz, zirkuitua eta modalitatea probatu nahi dituenarentzat, abentura honetan hasteko. Etorri nahi duen korrikalari guztientzat zabalik dago", egin dute gonbita. Gogoan izan, orduero, norberak erabakitako erritimoan 6,7 kilometroko ibilbidea osatzen datza erronka berri honek.

Otsailaren 15ean, Oriaren 31. Traineru Jaitsiera

Ohi bezala, Orion amaituko den proba honek Aginaga izango du abiapuntu; Mapil eta Sarikola. Izan ere, bi distantziatan jokatu da; parte hartzaile batzuk 6 kilometroko bidea egingo dute erriogan barrera, gainerakoak 4.000 metrokoa. Jaitsierari arratsaldeko 16:00etan emango zaio hasiera, baina ordu hau alda daiteke, antolakuntzak otsailaren 9ra arte zabalik duen epaldia baita izena emandako parte hartzaile kopuruaren arabera.



Mapil eta Sarikolatik abiatuko da.

Miriam Arrillaga, Binakako Txapelketa Nagusiko Urrezko Ligan

Lehen faseko lau bikoterik onenek elkarren aurka jokatu dute datozen hiru asteetan eta ligaxka honetako emaitzek erabakiko dute zeintzuk izango diren finalerdietako kanporaketak. Urrezko Ligaxkako lehenek laugarrenen aurka jokatu dute eta bigarrenek hirugarrenen kontra.

"Giro ederrean eta harmailetan jende asko zegoela jokatu zen lehen faseko azken jardunaldia Arrigorriagako pilotaleku bikainean eta bertan, Etxegarai-Arrillagak ez zuten hutsik egin dagoeneko aukerarik gabe ziren Uriarte-Capellani (22-16) gailendu eta lehen faseko bigarren puntua eskuratzeko, Master Laboral Kutxa Emakumezkoen Txapelketako antolatzaileek azaldu dutenez.



Etxegarai-Arrillaga bikotea.

Master Laboral Kutxa Emakumezkoen eskuz binakako txapelketa

Igandea, 2025-02-02

Arrigorriagako pilotalekua

Eskuz binaka, pilota mistoa

Etxegarai - Arrillaga 22

Uriarte - Capellan 16

Eskuz binaka, pilota mistoa

Arraiza - Gaminde 11

Larrarte - Erasun 22



la erabaki gehienek aho bateko babesak izan zuten urtarrilaren 30eko osoko bilkuran.

Hirigintza eta zaintza gaiak, osoko bilkuran

HAPO-aren behin-behineko onarpena, Egurtzegiko bizi arteko etxebizitzak, herri-bideen erabilerari lotutako ordenantza, diru kontuak edota euskararen normalizazioa sustatzeko eskualde mailako hitzarmena ahotan hartu zuen udalbatzak urtarrilaren 30eko osoko bilkuran.

Hiria Antolatzeko Plan Orokorra

Etorkizuneko Usurbil marrazteko bide-orriaren onarpenean beste urrats garrantzitsu bat eman zuen udalbatzak urtarrilaren 30eko osoko bilkuran. Usurbilgo Hiri Antolamenduko Plan Orokorra (HAPO) behin behinean onartu zuten gehien-oso EHBildu eta PSE-ren udal ordezkarien babesarekin. EAJ-koak abstenitu ziren. Dokumentua bera "EAE-ko Lurralde Antolamendurako Batzordera" igorriko dute, "txostena egin dezan hiru hilabete epean", eta "ingurumen-adierazpen estrategikoa" egitea galdegiteko ingurumen-organora ere bidaliko dute. Behin betiko onarpena ematea Foru Aldundiari dagokio, udal gobernu talde-rik azaldu zuten, 7.000 biztan-

le baino gutxiagoko udalerria delako Usurbil. Urte amaierarako behin betiko onartu izango dela espero dute.

Iragan asteko erabakiarekin, gai honekin hamarkada bate-tik gorako udal barruko lan-keta ibilbidea borobildu dute. Horregatik, iragan asteko udalbatzarrean gogora ekarri zuten "inflexio puntu garrantzitsua" zela saio horretan hartzeraz zihozten erabakia. Izan ere, hamarkada bateko

"USURBILGO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRA BEHIN BEHINEAN ONARTU ZUTEN GEHIENGO OSOZ"

lanketa izan da. 2014an orduko udal gobernu taldea hasi zen orain arteko plangintza berrikusten. Hamaika parte hartze prozesu, azterlan eta dokumentu osatu dituzte ordutik. "Usurbil, oraina da geroa" prozesuarekin eman zioten hasiera ibilbide hari 2014an. Gerora etorri ziren, mugikortasunari lotutako nahiz auzokako prozesu sektorialak. Urtebete geroago, aurrerakina onartu eta plan-

"UDAL ORDENANTZA BAT EGUNERATZEKO ERE BALIATU ZUTEN OSOKO BILKURA"

gintza hau idazteko helburu eta irizpideak adostu zituzten. Ahal izan duten heinean ere eragindako lurjabeekin ere adostasunetara heltzen ahal-egindu zirela oroitarazi zuten udal gobernu talde-rik. 2022an hasierako onarpena eman ziztaion HAPO-ari. Gero, alegazioak aurkezteko epealdian, 16 txosten sektorial biltzeaz gain, 41 ekarpen jaso zituzten, iazko ekainean ebatzi zituztenak. Gerora, txosten horien ohartarazpenekin, alegazio onartuekin... beharrezko ego-kitzapenak txertatu dituzte azken hilabeteotan. Halere, ohartarazi dutenez, horiek "aldaketa esanguratsurik, egiturazkorik" ez dute. Ondorioz, tramitazio prozesuan aurrera egitea ahalbidetuko die horrek.

Herri bideak

Udal ordenantza bat eguneratzeari baiezkotzea emateko ere baliatu zuten urtarrilaren 30eko udalbatzaren osoko bilkura. Izan ere, 2001. urtetik indarrean zen Usurbilgo "hiri trafikoko, motoredun ibilgailuen zirkulazioa eta bide segurtasuna arautzeko" ordenantza berri-tua hasieraz onartu zuen udalbatzak aho batez. Araudi honen hasierako onespina jendaurrean jarriko da erreklamazioetarako 30 lanegunetaz. Tarte horretan halakorik egongo ez balitz, ordenantza hori behin betiko onartutzat joko da. Erabaki hau hartzeko beharra, "ordenantza oinarritzen den zenbait lege iraungita daudelako eta beste batzuk daudelako" eta "urte hauetan guztietan herriko bideetako zirkulazioa eta segurtasunarekin zerikusia zuten aldaketak gauzatu direlako" da. Horren haritik, udaltzainburuak araudi hau berritzea proposatu zuen eta horixe da udalbatzak iragan astean aho batez onarturikoa. Araudi eguneratu honen aldaketak bi dira nagusiki. Batetik, "Bide Publiko jakinetan ibilgailuen aparkamendua mugatzea" erabaki dute hasieraz; urdinez

margoturiko Merkataritza Guneakizendatutako eremuetako aparkalekuak hain zuzen. Bestalde, oinezkoak lehentsiko dituen eremuak arautzea ere proposatzen du araudi aldatuak, "orain arte jaso gabekoak" udal gobernu taldetik azaldu zutenaz. Horien artean da, Kalezarko Belmonte kalea oinezkotezko egitasmoa. Hau bideratzeak ezinbesteko egiten zuten ordenantza hau ere onartzea.

Euskara

2002an sinatutako lankidetzaren hitzarmenaz geroztik, euskararen normalizazioa sustatzeko egitasmoak bideratzeko elkarlanean dihardute Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo udalek, Buruntzaldea osokoek alegia. Hitzarmen honen indarraldia amaitua zegoenez, egokitzen joan diren lankidetzaren honi jarraipena ematea. Horretarako, hitzarmen hori beste lau urtez berritzea onartu zuen udalbatzak urtarilaren 30eko osoko bilkuran. Jarduera-esparruotan eragin nahi dute: "familia eta irakaskuntza (hizkuntzaren transmisioan edo ondorengoetarako eragiteko), kirola (aparteko hitzarmena dugu «kirola euskaraz» egitasmoaren inguruan), aisialdia, merkataritza eta udal barneko euskara planak (hizkuntzaren erabileran eragiteko)".

Egurtzegi

Urrats berri bat eman zuen udalbatzak iragan asteko osoko bilkuran, Egurtzegin kokatuko diren bizi osorako etxebizitzaren egitasmoa bultzatzeko. Sei bizileku izango dira, haietatik lau Udalaren esku geratuko direla berri eman zuen udal gobernu taldeak, "usurbildarrei baliabide hori eskaini ahal izateko". Izan ere, "Egurtzegiko eraikinean dagoen eta Matia Fundazioaren jabetzakoak diren bizi osorako etxebizitzaren alokairu-kontratua" onartu zuten udal



Bizi arteko sei bizileku izango ditu Egurtzegi zaintza beharra dutenentzat eta haien zaintzaileentzat.

ordezkariek aho batez. Zazpi urteko iraupena izango du, urte urte hamar urtera arte luzagarria izango dena. Urtero 55.200 euro ordainduko dizkio Udalak Matiarri. Diru kopuru horren baitan txertatua egongo da, etxeon mantenu gastuak baita bizilekuko egoiliarrek haien egoerak kudeatzeko izango duten erreferentziarako gizarte langilea ere. Azken herritarri kontratua amaitzean bukatuko da Udalak Matiarekin izenpetutako duen kontratua. "Errentariak konpromisoa hartzen du errentan hartutako etxebizitzak Usurbilgo herritarrek etxebizitza gisa erabiltzeko, hala eskatzen badute eta horretarako izendatzen badituzte, Udalak Matia Fundazioarekin lankidetzan sustatutako zainketa-eredu berriaren barruan ezarritako moduen bidez, "Usurbilgo Zaintza Ekosistema" izenekoa".

Gogoan izan, etxebizitza hauetako bakoitzean, zaintza behar duen pertsona zaintzaile jardunean ari den bizikidearekin batera egon ahal izateko dira alokairuan. Usurbil herri zaintzaileagoa izateko bidean, Txirikorda edota Egurtzegirekin batera eskainiko den baliabidea da honakoa, "iraupen

luzeko zainketak jasangarriagoak izan daitezzen. Pertsona ardatz duen arreta da eredu berriaren oinarria: etxean bizi ezin bada, etxean bezalako ekipamenduak eskaintzea da eredu horren zutabeetako bat". Etxebizitzok eskuratzeko sarrera baldintzak edota bizilekuen erabilera arautuko duen ordenantza lantzen hasia da Udala.

Etxez etxe

Zaintza gaiak alboratu gabe, Udalak badu etxez etxe zaintza zerbitzua. Usurbil garatzen ari den zaintza ekosistema eredu berrira egokituko du etorkizunean. Orain artekoarekiko aldaketa esanguratsuak izango ditu. Horretarako lizitazioa kaleratuko du. Bitarte horretan, egun indarrean den zerbitzu hau hitzarmen bidez Foru Aldundiak finantzatzen laguntzen du.

"BIZI OSORAKO SEI BIZILEKU IZANGO DIRA EGURTZEGIN, HAIETATIK LAU UDALAREN ESKU GERATUKO DIRA"

Hitzarmen hau aho batez berritzea erabaki zuen udalbatzak iragan asteko osoko bilkuran. Halere, udal gobernu taldetik ohartarazi zuten, "ikuskitzen dago hitzarmen honekin zer gertatuko den", zaintza ekosistema berrira egokitze egin asmo dagoen lanketa tarteko.

Diru kontuak

Hiruhilero egiten duten moduan, udal kontuhartzaileak udalaren egoera ekonomikoari buruzko xehetasunak eskaini zituen udalbatzaren iragan asteko osoko bilkuran. "Ohiko urtea izan da", ezustekorik gabekoa, laburbildu zuen 2024ari buruz mintzatzerakoan. Urte amaieran izandako bi aldaketa nabarmendu zituen; batetik, Elkargunera eta haur eskolaren eraberritzea bideratuko duten 2,7 milioi euroko mailegua urte amaieran sinaturikoa eta Txirikorda belaunaldiarteko etxebizitza proiektuaren komunitariotik jasotzea esperotako diru-sarrera zertxobait hobea izan dela. Udalak likideziaz arazorik gabe egoten segitzen du. Izan ere, 30 eguneko epealdiaren oso azpitik, batz beste 6,21 egunetan bideratzen ditu ordainketak.



Taldeko bi kide usurbildarrak, irudiaren erdian: Martin Larrañaga eta Ixak Arruti.

Izan Bai talde berriaren estreinako diskoa kalean da

"Dena Galdu Baino Lehen" izena du Ixak Arrutik eta Martin Larrañagak osatu duten taldearen lehen diskoak. Plataforma digital ezberdinetan topatuko duzue.

Usurbilek etenik gabeko herri sortzailea izaten segitzen duela baieztatzen duen albiste segidan. Iragan asteburuan hemezortzi urteko ibilbide oparoa jorraturiko Odolaren Mintzoa agurtu ostean, heavy metal talde berria jaio da Usurbilen; Izan Bai.


Azkeneko bi hilabeteotan hiru aurrerapen kanta eta bakoitzaren bideoklipak argitaratu ostean, lan osoa plazaratu zuten urtarrilaren 31n. "Dena Galdu Baino Lehen" izena du haien estreinako sorkuntza lanak. Plataforma digital ezberdinetan duzue entzungai. "Bihotzez, mila esker prozesu honen parte izan zaretenoi eta orain arte gure abestiak entzun eta hain ondo jaso dituzuen guztioi. Poliki-poliki, hau hastera doa, azkenean!", iragarri dute. Berri eman dutenez, "Zumaiako Ozen estudioan grabatu dute lana, Jurgi Taboadaren gidaritzapean. Azalaren diseinua,

berriz, Kuku Maitiak egin du". Bederatzi abestiko lan honen egilea honako talde hau da: Ixak Arruti (abeslaria eta gitarra), Martin Larrañaga (bateria), Ibon Aginaga (gitarra) eta Urtzi Olaziregi (baxua).

Aurkezpen kontzertua, otsailaren 22an Aginagako Eliza Zaharrean

Talde berria, disko berria... Aurkezpen kontzertuaren data finkatzea baino ez zuten falta eta hori ere egin dute dagoeneko. Izan Baikoek Aginagan eskainiko dute estreinako kontzertua, otsailaren 22an, arratsaldeko 18:00etan, Eliza Zaharrean.

Txiskeroak herriko talde gazteak ere parte hartuko du emanaldi horretan. Berriki, Odolaren Mintzoa taldekoen agurreko jaialdian entzun ahal izan genituen. Kontzertuotarako sarrerak aurrez eskuratu ahalko dira 2 eurotan usurbilkultura.eus plataforman.



Andoni Egaña, Nerea Elustondo eta Julio Soto (argazkian) arituko dira.

Erromeria eta bertso-afaria Aginagan

Trikiti eta bertso doinuak uzartuko dituzte Eliza Zaharra Elkarguneak otsailaren 15erako antolatutako hitzorduok:

Otsailak 15, larunbata

- 18:00 Erromeria Ostolaza eta Larrañaga trikitilariekin. Sarrera, doan.
- 21:00 Bertso-afaria, Andoni Egaña, Julio Soto eta Nerea Elustondorekin.

• Afarirako menua: iberikoak, pateak, baserriko oilaskoa parrillan, txerri saiheskiak parrillan, Eceizako pasteltxoak. Ogia, kafea eta edariak barne.

• Sarrerak: 30 euro usurbilkultura.eus plataforman edo Aginagako Eliza Zaharra Elkargunean (astelehenetik ostiralera, arratsaldeko 18:00etatik 20:00ak artean).



Urtarrilaren 25ean taldea agurtu zuten emanaldi jendetsu baten bitartez.

Odolaren Mintzoa: "Zuen maitasuna gertu sentitu genuen"

Pozarren eta esker onez agertu da Odolaren Mintzoa urtarrilaren 25eko agurreko jaialdiren ondotik. "Zuen maitasuna gertu sentitu genuen, oso. Mila mila esker, bihotzez!", adierazi dute taldeko kideek.

"18 urtetan zehar idatzi, abestu eta maitatu ditugun abestiak zuekin partekatu genituen azkenekoak. Eta zuen erantzuna zoragarria izan zen. Etsipenaren aurka kantari, gauari, askatasunari, biluzik, kantari".

MERKATU TXIKIA

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUAN

Usurbilen alokairuan hartzeko etxe bat edo logela baten bila nabil 618773004

10 urte Usurbilen alokairuan bizi den familia bat gara. Bost pertsona gara. Alokatzeko etxeren bat baduzu deitu: 68865344.

Etxebizitza bila dabilen familia gara. 3 logelako bizilekua behar dugu alokairuan hartzeko. 688 653 441.

Andatza tabernako jabea 3 logeladun pisu baten bila dabil 627 841 927

San Esteban kalean 31m² lokal bat alokairuan. Bulego edo kontsulta bezala erabiltzeko egokia. 655735715.

Bi logelako pisu bila nabil. Presazkoa da: 643 022 475.

Neska edo emakume batentzako logela bat daukagu alokatzeko Usurbilen. 609 647 728.

IRAGARKIA JARTZEKO:

NOAUA:KO BULEGOTIK PASA

ERREDAKZIOA@NOAUA.EUS

943 360 321

- Asteleheneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Iragarki berriak sartu ahala, zaharrak ezabatuko ditugu.
- NOAUAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

MOTORRA

SALMENTA, GARAJEAK

Garajea salgai Etxealdian. 14 metro koadroko garajea salgai Etxealdian. T685707278

Garaje itxia salgai herri sarreran. 646 601 947 (18:00etatik aurrera).

Afiziozko egur lanetan aritzeko garaje edo lokal baten bila nabil Usurbilen. 722 248 869.

LANPOSTUAK

LAN ESKAINTZAK

Zarauzko taberna batean pintxoak egiteko sukaldari bila gabea. Orduetgia asteleheneetik larunbatera goizeko 8:00etatik arratsaldeko 15:00 arte, igande eta jai egunak libre. 661972670.

Pertsona bat bilatzen dut. DBHko ikasle bati astean hirutan klase partikularrak emateko. Ikasturte osorako konpromisoa: 647 742 588.

LANPOSTUAK

LAN ESKAERAK

Adineko pertsonak zaintzeko eskaintzen dut neure burua. 747446091 Michele

Paperak egunean ditudan neska bat naiz eta interna moduan edo orduka zaintza lanak edo garbiketara lanak egiteko lan bila nabil. 607455413.

Etxeko lanak / zaintza lanak egiteko prest dagoen neska bat naiz. Goizez (9:00-14:00) zein arratsaldez (16:00-21:00) aritzeko prest. Telefono zenbakia: 609647728

Pertsona helduak zaintzeko edo garbiketara lanak egiteko prest. Orduka edo interna moduan. 628 459 625

BESTELAKOAK

Frantses irakasle baten bila ari gara, DBH4ko ikasle batentzat. 615758476.

M365 Xiaomi patinete elektriko saltzen dut. 160 euro. Kaskoa eta ordezko gurrupila opari. 656734413 (whatsapp bidez idatzi).

Futbol partidak

Otsailak 8, larunbata

- 10:00 Infantil neskek: Usurbil FT B-Hernani CD B
- 11:30 Kadete mutilak: Usurbil FT-Hondarribia FE B
- 16:00 Ohorezko maila, jubenilak: Usurbil FT-Elgoibar CD
- 18:15 Preferente maila mutilak: Usurbil FT-Danena KE

Otsailak 9, igandea

- 10:00 Infantil mutilak: Usurbil FT-Amaika Bat FT
- 11:45 Infantil txiki mutilak: Usurbil FT-Euskalduna SD

Otsailak 8, larunbata (kanpoan)

- 09:00 Kadete neskek, Donostian: Arrupe Chaminade-Usurbil FT
- 10:00 Infantil mutilak, Tolosan: Tolosa CF A-Usurbil FT B
- 13:30 Infantil neskek, Añorgan: Añorga KKE B-Usurbil FT

Otsailak 9, igandea (kanpoan)

- 09:00 Infantil mutilak, Herreran: S. Tomas Lizeoa B-Usurbil FT B
- 12:00 Erregionalak, Andoain: Euskalduna B-Usurbil FT B
- 15:30 Jubenilak, Irungo Artian: Behobia CD B-Usurbil FT BT

Pilota Usurbilen

Otsailak 7 ostirala, 18:00

Infantilak 2. Mailan binaka:

- Pagazpe 1
- Arkirun 2

Jubenilak 1. Mailan binaka:

- Udaberri txapelketa:
- Pagazpe 2 (Aburuza-Errasti)
- Bergara

Infantilak 3. Mailan binaka:

- Pagazpe
- Bergara

Eskubaloia Oiardon

Otsailak 8, larunbata

- 16:00 Kadete mutilak B: Usurbil KE B-Karibe Berria

Otsailak 9, igandea

- 10:30 Kadete mutilak: Usurbil K.E. A-Taosa Pulpo EK Errifa zozketan saritutakoa: 1675.

Boleibola Oiardon

Otsailak 8 larunbata, 12:00:

- 12:00 Infantil mutilak: Usurbil-Hernani

TELEFONO INTERESGARRIAK

Udala	943 371 951	Gure Pakea Egoitza	943 368 770
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Gure Elkarte Egoitza	686 554 145
Udaltzaingoa	943 361 112	Arrate Zahar Egoitza	692 898 492
Sexu Aholkularitza Gunea	697 919 516	Salbatore Parrokia	943 361 239
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894
Bake Epaitegia	943 372 336	Anbulategia	943 362 013
Oiaro Kiroldegia	943 372 498	Amenabar botika	943 376 076
Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	Iturralde botika	943 363 395
Potoxenea	943 371 999	DYA	943 464 622
Kzgunea	943 023 684	Gurutze Gorria	943 272 222
Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Emergentziak	112
Etumeta AEK euskaltegia	607 609 379	Genero-indarkeria, arreta	016
Kalezar Eguneko Zentroa	943 365 249	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163

HILDAKOEN BERRI EMATEKO:

943 360 321 edo erredakzioa@noaua.eus

- ▶ Asteleheneko 17:00ak arte jasotakoak emango ditugu argitara.
- ▶ Gai nontzakoak, hurrengo asteko astekarian.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTELEHEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

OSTIRALA 07

USURBIL 'Animo' lehen film luzearen estreinaldia

Alex Tello usurbildarraren lehen lan luzea. Sarrerak dagoeneko bukatu dira.

19:00 Sutegin.

USURBIL Barrikotea Aitzaga elkartean

Sarrera: 30 eurotan salgai aurrez Aitzagan eta Txiribogan.

21:00 Aitzaga elkartean.



Telmo Irureta da filmeko protagonista nagusia. Sarrerak agortuta daude.

'Animo', Alex Telloren lehen filmaren estreinaldia

Alex Tellok 'Azken muxua' film laburra grabatu zuen 2017an. Hari horri tiraka osatu du 'Animo', bere lehen film luzea. Telmo Iruretaren interpretazioak inklusioari beste buelta bat ematen dio. Familia, harremanak eta eguneroko hainbat egoera ikuslearentzako identifikagarriak gertatuko dira.

- Otsailak 7 ostirala. 19:00 Sutegin. Sarrerak agortuta.
- Sinopsia: "Aitor etsirik eta Leire kezkatuak. Mirenek ez du loturarik. Itxasok badu kanta berririk, aldiz, Amets dabil isilik. Hemen inork ez du barre egiteko motiborik. Bizitzaren aurrean, ihesbideak baino, aukeran hobe heldulekuak izatea".

'Itoiz' rock taldearen inguruko filma

Itoizen argitaratu gabeko zinta bat agertu da eta aurkikuntzak Juan Carlos Perez kantariaren barrenak mugituko ditu, iraganarekin adiskidetzeko baliokidiona. Filmak fikzioa eta dokumentala uztartzen ditu. Filma larunbat honetan ikus ahal izango da, 19:00etan Sutegin. Sarrerak aurrez eskuratu ahalko dituzue sei eurotan usurbilkultura.eus plataforman.



Bisita gidatuak

Otsailak 8, larunbata
11:00-12:15 Gerraren Memoria Ibilbidea, bisita gidatua.

Otsailak 9, igandea
11:00-12:15 Museo Irekia bisita gidatua (erdaraz).

Otsailak 22, larunbata
11:00-12:30 Salbatore Elizaren ondarea ezagutzeko bisita gidatua eta organo erakustaldia.

Otsailak 23, igandea
10:00-13:00 Usurbilgo Sagardo Kulturari buruzko bisita gidatua.

Otsailak 26, asteazkena
10:00-11:00 Zero Zabor bisita gidatua.

Otsailak 28, ostirala
10:00-11:15 Zaintza Usurbil.

Izen-ematea:
650usurbilbizi.eus

LARUNBATA 08

USURBIL 'Itoiz' filmaren proiektzioa

ITOIZ musika taldearen inguruko filma. Sarrerak aurrez eskuragarri usurbilkultura.eus plataforman edota NOAUAren egoitzan.

19:00 Sutegin.

IGANDEA 09

USURBIL Gipuzkoako 9. Orientazio Ligako lehen proba

Irteera, Askatasuna plaza. Izen-ematea: banaka nahiz taldekakoak, otsailaren 6ko gaueko 22:00ak arte, eu.deporticket.com helbidean. Ikus 17. orrialdea.

Egun osoko jarduna.

USURBIL 'Miñan' antzezlana

Sutegin. Sarrerak agortuta.

18:00 Sutegin.

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42

EGIN ZAITEZ BAZKIDE!

www.noaua.eus

TXAPELDUN
ARDANGELA
EGUNEKO MENUA
PLATERAK
OGITARTEKOAK
RAZIOAK
ARROZAK
OILASKO ERREA
Muna lurre 2, 943 49 88 83

ZALDIGAIN
ERREMENTARIA
• Burnia, inox, altzairua eta corten altzairuarekin lan egiten dugu.
• Barandilak, balkoiak, eskailera dekoratiboak, solairuak....
www.zaldigain.com • info@zaldigain.com
Tfno.943593303 • Mugikorra: 677463867

Praktika onak sustatzen: GARBIGUNE MUGIKORRA

Zer utzi dezakezu garbigune mugikorrean?

- ▶ Margoak, bernizak, disolbatzaileak, kolak, fitosanitarioak, aerosolak: beteak eta hutsak
- ▶ Material berrerabilgarriak: jostailuak, jolasak, gailu elektriko eta elektronikoak...
- ▶ Bolumen txikiko plastiko gogorreko materialak (ontzi arinak ez direnak)
- ▶ Tamaina txikiko txatarra (lapikoak, zartaginak, metalezko erretiluak...)
- ▶ Etxetresna, aparailu eta jostailu elektriko eta elektronikoak
- ▶ Inprimagailuen tinta kartutxoak eta tonerrak
- ▶ Kafe kapsulak, poltsa baten barruan
- ▶ Egur zati txikiak
- ▶ Material informatikoa
- ▶ Bonbilla fluoreszenteak
- ▶ Pilak

2025eko kokapenak



Informazio gehiago: Atez ateko bulegoa Joxe Martin sagardia plaza z/g (udaletxea)
900 776 776 / 606 501 024 atezate@usurbil.eus



Usurbilgo Udala

ORIANTE BHI

Matrikulazio epea OTSAILAK 3tik 14ra

- 12-18 urte bitarteko ikasketak
- Jangela zerbitzua
- Euskal kultura eta kulturartekotasuna bultzatuz
- Aniztasunaren trataera
- Hezkidetzak
- Agenda 2030
- Mugikorrik gabeko ikastetxea
- ...

DBH

BATXILERGOA

Giza eta Gizarte zientziak
Zientzia, osasuna eta teknologia

Zerbitzu publikoko bokazioa duen kalitatezko hezkuntza

Euskalduna, eleanitza, demokratikoa, parekidea, komunitarioa eta izaera laikoa duena.

Hezkuntza aktiboa bultzatuko duena.

Gizarte hobe eta bidezkoago batekin konpromiso indartua izango duten ikasleak heziko dituen.

943 899494

info@oriarte.eus

Landaberri eraikina (DBH1/2)

Pintore kalea 2

Larrekoetxe eraikina (DBH 3/4 eta Batxilergoa)

Buenos Aires aldapa 1 - Lasarte-Oria

<https://oriarte.hezkuntza.net/eu/>



ORIANTE
Institutua



Udarregi ikastolak zera eskaintzen dizue:

- **0 urtetik 16 urte bitarteko irakaskuntza arautua.**
- **Hezkuntza Integrala:** Konpetentzietan Oinarritutako Hezkuntza.
- **Hezkuntza eredu propioa:** Konfiantzaren Pedagogia egitasmoa garatzen dugu.
- **Ikastola Berritzailea:** eraldaketa didaktiko, metodologiko, eta teknologiko etengabea sustatzen dugu.
- **Ikastola Euskalduna:** euskaraz irakatsiz eta ikasiz, euskaraz biziz, euskaldun konprometituak hezten dihardugu.
- **Irakaskuntza Eleanitza:** ingelesa 4 urtetik aurrera eta frantsesa, hautazko gaia, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan.
- **Herritarra:** Euskal Herriko Kultura eta herri-ekintzetan murgildutako ikastola.
- **Ikastola Inklusiboa:** guztion ikastola bultzatzen dugu, aniztasuna, garapen- eritmo eta behar espezifikoak aintzat hartuz.
- **Baso eskola:** basoa gela bihurtzen da. Espazioa eta bertan aurkitzen diren naturako elementu guztiak ikasteko baliabide dira.
- **KiVa ikastola:** Eskola Jazarpenaren (bullying) aurkako programa finlandiarra indarrean 2017tik aurrera beste 56 ikastolekin batera.
- **Autobusa** auzo eta herrietara: Santuenea, Aginaga, Zubieta eta Lasarte.
- **Jangela:** bertan sukaldatutako herriko produktuak.
- **Zaintza zerbitzua:** 08:00etatik 09:00etara eta iraila eta ekainean 14:30 16:30era.
- **Zirimara Proiektua** (eskola kirola eta aisialdia).
- **Beka sistema propioa:** kuoten %100 bonifikatua.

57 urteko esperientzia Usurbilen.

Matrikulatzeko epea (3 urtetik-16 urtera)

Otsailaren 3tik 14ra (biak barne)

HAUR HEZKUNTZA: 3 - 6

LEHEN HEZKUNTZA: 6 - 12

DBH: 12 - 16



943 361 216

Udarregi Ikastola

Gernika ibilbidea. USURBIL

www.udarregi.eus